

## **START INNOVA PROIEKTUA**

Jon Auzmendi, Javi Castaño, Alex Echarri eta Javi Castaño.

### **BEZEROAREKIKO HARREMANAK:**

Gure enpresan bezeroarekiko harremanari garrantzi handia ematen diogu, horren baitan dagoelako gure bezeroak gure produktua erostean eroso egoten badira aurrerago beste erosketa bat egitera itzuliko diren edo gutaz ondo hitz egingo duten.

Horregatik, gure txipak erosten dutenentzako hainbat laguntza sistema asmatu ditugu:

Alde batetik online komunitate bat sortuko dugu, txip lokalizadore kontsumitzaileek beraien kontua sor dezaten eta bertan galderak eta aholkuak denon artean parteka ditzaten. Gainera plataforma horretan gure enpresako bizpahiru tekniko izango ditugu noizean behin galderak erantzuten.

Gainera, bezero berrientzako edo besterik gabe teknologian adituak ez direnentzako eta zailtasunak dituztenentzako, atentzio pertsonalizatua izateko aukera egongo da, skype bidez, edo fisikoki, teknikari bat eroslearen etxera bidaliz. Skype bidezko atentzioa doan izango da produktuak erosten dituztenentzako, baina agian itxoitea tokatuko zaie, lista de espera bat egongo delako. Teknikari bat etxera bidaltzea nahi badute aparteko kostua ordaindu beharko dute.



Bezero berriak erakartzeko, garrantzitsuena, guk iada ditugun bezeroak ondo tratatzea eta zaintzea dela uste dugu, gure izen ona zabal dadin. Hala ere gure produktuaren propaganda egiteko, sare sozialetan ezagunei zabaltzeko eskatuko diegu eta produktora batekin txip lokalizadorearen iragarki labur erakargarri bat egingo dugu, telebistan eta baita sare sozialetan ager dadin. Bestalde irratian ere iragarki motz batzuk sartzen saiatuko gara.

